



[Arartekoak prestatutako [Europako Herriaren Defendatzailearen adierazpenaren](#) euskarako itzulpen informala]

## **Defentsa-erakundeen Europako Sarea**

### **Europako Parlamenturako hauteskundeei buruzko adierazpena, 2024ko ekainaren 6-9**

2024ko ekainaren 6tik 9ra bitartean, milioika europarrek Europako hauteskundeetan botoa emango dute eta, hala, Europako demokraziaren etorkizuna eraikitzen parte hartuko dute.

Boto-emaeleek erabakiko dute Europako Parlamentuko zein kidek ordezkatzeko dituzten Europako herritarrak estatu kideekin batera lege berriak prestatzerako garaian, eta Europako Batzordea nork zuzenduko duen zehazten lagunduko dute.

Europar Batasunak gero eta zeregin garrantzitsuagoa du gure etorkizun kolektiboa zehazteko orduan, batez ere COVID-19aren pandemiaren eta Errusiak Ukraina inbaditu ondoren. Erronka geopolitikoek eta Batasuna handitzeko proposamenak esan nahi dute Batasunaren zereginak eta eraginak garatzen eta hazten jarraituko duela.

Ondorioz, guk, herriaren defendatzaileok eta eskaera batzordeetako presidentek:

Berretsi egiten dugu Europar Batasun demokratiko, garden eta arduratsu batekin dugun konpromisoa, oinarrizko eskubideak eta balioak errespetatuko dituen.

Berrito diogu, uste osoa dugu hauteskunde-agindu sendo bat Batasunaren erantzukizun demokratikoaren funtsezko zati bat dela.

Botoa emateko eskubidea duten europar guztiei eskatzen diegu erabil dezatela parte-hartze demokratikorako eta hurrengo hauteskundeetan botoa emateko duten oinarrizko eskubidea.

Gogoan izan behar dugu eskubide horiek ez direla ziurtzat jo behar, eta gure erakunde demokratikoek egoki jarduteko, ezinbestekoa dela konpromiso zibiko sendoa, etengabeko errefortzu gisa balioko duena.